Y, si Enrique II, Rey de Castilla, entregó en 1367 este valle de Arriaran con todas sus tierras y construcciones a su leal vasallo D. Lope Lopez de Oria (a partir de dicho momento adoptó el apellido Arriaran), una descendiente secundaria suya, ya en 1493, estableció también una primera comunidad de frailes Mercedarios en Aranzazu, justo 24 años después a que apareciera en el lugar dicha figura de la Virgen tallada en piedra. Fundó el nuevo convento junto al de beatas y seroras dirigido precisamente por esta Dª Juana de Arriaran. Fue un hijo de dicha Señora, de nombre Fray Pedro de Arriaran, quien acudió desde Vizcaya con otros hermanos de hábito al lugar; y lo hizo con el permiso del Señor de Oñate, pues, ya entonces, Aranzazu quedaba dentro de la jurisdicción del Señor de Oñati (ver por curiosidad en las fotos nº 4 y 5, como era esta zona de Aranzazu todavía a principios del siglo XX).

La Iglesia antigua de Aranzazu. En la imagen de principios del siglo XX señalamos con una flecha la vieja diligencia camino de Oñati.

La calle de Aranzazu hacia 1903.



Cuadro genealógico de la "Casa de Arriaran".

Aquí se dio pues el caso, que una Arriaran se estableciera y fundara convento en jurisdicción de la casta de los Guevara, dentro del Condado de Oñati. D. Beltran de Guevara, con anterioridad a estos Oria/Arriaran, también recibió el mismo valle de Arriaran como premio a sus servicios, aunque fuera por parte de un rey de Castilla anterior y de distinta rama, el cual, a su vez, fue derrocado más tarde por esta otra línea bastarda beligerante de los Trastámara. En este caso pues, casi siglo y medio antes, ya en este valle de Arriaran, un Lope de Oria (después de apellido Arriaran) substituyó en el Señorío de Arriaran a D. Beltrán de Guevara.

Pero, ¿Quien sería pues esta viuda Dª Juana de Arriaran que invirtió gran parte de su vida y hacienda en este convento de Aranzazu? Pues bien, a esta señora no la hemos encontrado en las genealogías directas de los Arriaran citadas por D. José Luis Orella Unzue y D. Luis Miguel Diez de Salazar, ni tampoco en los datos de J. C. Guerra, Garcia Carraffa o Mogrobejo, aunque, dadas las fechas citadas, tal vez fuera una "segundona" ajena a esa línea principal de sucesión en época cercana a D. Juan Lopez Arriaran (ver el árbol genealógico nº 6 de L. M. Diez de Salazar).

SU ENTRONQUE CON LA CASA LEGAZPI DE ZUMARRAGA

Fue posterior a 1367, cuando distintas ramas de esta primitiva Casa de Arriaran se fueron estableciendo en otros lugares de la comarca. En el año 1384 ya eran vecinos de Segura; igualmente se establecieron en Bergara, Itxaso, Azkoitia, Ormaiztegi, Legazpia y Zumarraga; también, como Regidores, en Azpeitia hacia 1570, e igualmente en Arrasate. El palacio de Urretxu ya lo habitaba también una rama de estos Arriaran en 1544, tal y como observaremos más adelante, cuando les veamos entroncar con una hija del Mayorazgo Legazpi de Zumarraga.

Conozcamos ahora esta rama de los Arriaran que emparentó con una hija del Mayorazgo de los Legazpi, pues, dicho apellido Arriaran estuvo durante cuatro generaciones como cabeza del importante solar de los Legazpi en Zumarraga. Ver en la fotografía nº 7 dicha casa-torre Legazpi en el año 1864, justo el mismo año de inaugurarse el tramo ferroviario Beasain-Zumarraga-Alsasua, en la cual también se pueden observar las primitivas instalaciones de la estación. Señalamos dicha casa-torre Legazpi con un flecha, la cual todavía podemos contemplar hoy en día frente a esa misma estación de Zumarraga, aunque ahora felizmente restaurada, tal y como mostramos en la otra imagen nº 8.

El primer Arriaran del palacio de Urretxu que entroncó con una hija de D. Pedro de Legazpi y Ana de Gauna, en este caso fue D. Amador López de Arriaran y Errekarte. Este señor quedó como dueño de dicha casa-torre Legazpi en 1546, a la edad de 29 años, dada la muerte de su esposa Dª María Francisca de Legazpi y Gauna. Dicha señora falleció de parto con solo 21 años (nació el 15/10/1525), dejando tan solo un hijo de su unión con dicho Amador de Arriaran y Errekarte.



Estación de Zumarraga el año de su inauguración. La casa-torre Legazpi [illegible]

Torre Legazpi de Zumarraga restaurada.

El siguiente con apellido Arriaran, titular ya del Mayorazgo en esa casa-torre de los Legazpi, será pues Joan, el hijo de dichos cónyuges, de nombre Joan de Arriaran y Legazpi, quien casó a su vez con Dª Magdalena de Lasalde hacia 1579, cuando tenía 25 años de edad. En este personaje se observa más tarde un cambio de nombre (las clases altas cambiaban de apellido con frecuencia), aunque a veces lo hacían forzados por motivos de herencia, dado que en algunos testamentos era obligatorio adoptar el apellido del Mayorazgo heredado. El obligado nombre que adoptó D. Joan Arriaran y Legazpi por dicho motivo fue el de D. Joan Martínez de Arriaran y Gauna, por herencia de su tío/abuelo D. Pedro Gauna, del cual heredó el señorío y tierras de Araia (Azparrena).

El tercer descendiente de esta rama Arriaran que ostentó el Mayorazgo de los Legazpi será pues un hijo de los anteriores, también de nombre Amador, aunque ahora con apellidos Arriaran y Lasalde, el cual, a su vez, casó con Dª Joana de Altuna. Este matrimonio mantuvo seis hijos, de nombres Martín, Juan, Ángela, Magdalena, Francisca y María Arriaran Altuna. Éste D. Amador de Arriaran Lasalde falleció a su vez el 14 de Junio de 1618.

De los seis hijos anteriores, dado que los dos varones no tuvieron descendencia, el Mayorazgo recayó finalmente en Dª María de Arriaran Altuna, la cual contrajo matrimonio con Diego Martinez de Bikuña. Con esta señora se cerró el capítulo de fundadores y la linea directa de la Casa Legazpi, pues, a partir de entroncar con este apellido Bikuña, se sucederán en dicha casa-torre Legazpi de Zumarraga otras cuatro generaciones más, ajenas ya a la línea directa, ahora con el apellido Bikuña (ver ahora la imagen nº 9 de dicha casa-torre Bikuña en Legazpia, de donde procedía dicho linaje). Por último, Dª María Joaquina Bikuña, ultima de esa cuarta dinastía Bikuña-Legazpi, se casó con D. Joaquín Agirre Porcel, marqués de San Millan, cuyos sucesores fueron finalmente los que cedieron esta histórica casa-torre a la Diputación de Guipuzcoa en el año 1946.

Casa solar de los Bikuña de Legazpia.

LA UNIÓN DE LOS ARRIARAN CON LA FAMILIA GAYTAN DE AYALA

Fue mucho más tarde al enlace de esa otra rama Arriaran con los Legazpi (casi siglo y medio después), cuando esos títulos y bienes de los Arriaran, todavía vinculados al Valle, se transfieran a los Gaytan de Ayala, también por vínculo matrimonial entre ambas casas. En realidad, cuando ésta unión se efectuó, ambas familias ya residían en la Corte de Madrid; y, precisamente fueron estos personajes que citamos los que enlazaron dichos linajes:

> *"...Dª Teresa María de Arriaran, Marquesa de Tola y Señora del Palacio de Arriaran, nacida en Madrid en el año 1652, casó con D. Luis Diego Gaytan de Ayala, hijo segundo del Conde de Villafranca de Gaytan, a su vez Marqués de Aravaca, también nacido en Madrid durante el año 1653...".*

Será a partir de sus descendientes cuando se inicien los Gaytan como continuadores y administradores de los bienes de la Casa Arriaran. De esta forma siguieron estos Gaytan de Ayala en Arriaran-Gudugarreta-Astigarreta hasta principios del siglo XX, aunque no sin ciertos problemas. Esta Casa Arriaran englobó en un determinado momento los títulos de marqués de Tola, conde de Villafranca de Gaytan, a la vez que también el marquesado de Aravaca; y, este último título es precisamente el origen de las dificultades mantenidas con la Provincia, puesto que esta última no aceptó que dicho marqués de Aravaca como tal pudiera hacer uso de los títulos y prebendas emanados del título de Arriaran desde el siglo XV. Nos lo refiere Gorosabel de esta manera:

> *"...en las mismas consideraciones se fundó la provincia para oponerse a que el marqués de Aravaca usara los títulos de Señor Solariego de la iglesia y patronato del valle de Arriaran y de la villa de Gudugarreta. Demándósele sobre este particular ante el Consejo de Castilla el año 1729; pleito que se falló declarando por sentencia de vista y revista conformes de que no podían usar de aquellos dictados, y se abstuviese de hacerlo. La Real carta ejecutoria de esta declaración, librada en 22 de diciembre de 1730, se conserva en el archivo de la provincia...".*

Ciertas propiedades de Arriaran y el propio molino Angio en Gudugarreta, todavía seguían grabadas por un Censo de 4.900 reales de vellón de capital, a favor de la Capellanía del Alférez

General D. Amador López de Arriaran. Y, puesto que ya se nombraba un puente aquí en pleno siglo XV, debemos observar la imagen nº 10 antes de que se caiga, dado que este ruinoso puente sería paso obligado durante muchos años hacia este controvertido valle de Arriaran.

Viejo puente de Arriaran cubierto por la vegetación.

No quedan ya muchas aldeas en Guipuzcoa que aun mantengan su Campo Santo adosado a la parroquia, quizás por ello, en el centro del cementerio, todavía se ubicaba hasta la segunda mitad de la década 1970/1980 el viejo panteón de los Gaytan de Ayala, descendientes de los Arriaran. El último personaje de dicha familia que falleció en "su valle" fue D. Martín Gaytan de Ayala, el cual murió en el molino Angio de su propiedad el 15/6/1900.

El matrimonio formado por D. Martín Gaytan de Ayala y Dª María de las Mercedes Lapazaran Olazábal, tuvo a su vez cuatro hijos, Casilda, Rosario, Martín y José María Gaytan de Ayala Lapizaran. Estos cuatro hermanos, todos ellos solteros, otorgaron poder el 4 de enero de 1909 a su hermano José María, abogado y vecino de Bilbao, con objeto de que vendiera sus propiedades en la zona, y, entre ellas, también este molino de Angio.

Con las nuevas disposiciones surgidas para enterrar a los fallecidos en nichos, se remodeló dicho cementerio de Arriaran en régimen de "auzolan"; con ello, hacia finales de 1970, también desapareció ese único panteón de los Gaytan en el valle, vestigio postrero de esas antiguas villas de Arriaran-Gudugarreta-Astigarreta, con estos Gaytan de Ayala como Patronos diviseros.

FUENTES: D. Pablo Gorosabel, D. Leandro Silvan, Registro de Azpeitia, D. Ángel Cruz Jaca, D. Endika de Mogrobejo, Fondos Koldo Mitxelena, D. Borja de Aguinagalde, D. Esteban de Garibay A. y A. García Carraffa, Obra sobre Heráldica de D. Juan Carlos Guerra, Autores Rekalde-Orella, D. José Luis Orella Unzue, D. Sebastián Insausti, D. Luis M. Diez de Salazar y Dª Mª Rosa Ayerbe, D. Pedro de Anasagasti, D. J. Ignacio Telletxea Idígoras, El molino de Angio ("Beasain Jaietan", año 2003), D. José Ignacio Lasa.

FOTOGRAFÍAS: Martín García Garmendia. Las dos postales antiguas son propiedad del autor. El preciso dibujo de la ermita San Ignacio está efectuado por D. Julen Zabaleta Barrenetxea. Árbol Genealógico de D. L. M. Diez de Salazar. Santuario de Aranzazu antiguo de D. Feliciano Laborde, cedida por el nieto-depositario D. Fernando Laborde.

SUKALDE ALTZARIGINTZA • FABRICACIÓN DE COCINAS A MEDIDA

AROZBI
Sukaldeak - Cocinas

FABRICACIÓN DE COCINAS Y ARMARIOS EMPOTRADOS
Nafarroa Etorbidea, 12 • BEASAIN • Tel.: 943 08 50 58
Fabricación Foru, 70 behea • Tel.: 943 02 80 40

BAJADA DE MARI

Aitziber Saldias

Nola azaltzen diozu Beasaindarra ez den bati zer sentitzen den Mariren jaitsieraren testigu izaterakoan? Nola deskribatu bihotzean, erraietan, pizten den su hori, gure begien aurrean dantzatzen ari diren sugarren ispilu...?
Ez dut gogoratzen noiz izan zen gurasoek Mariren jaitsierara eraman ninduten lehenengo aldia. Ez gustatu ote zitzaidan edo ez. Beldurtu ote nintzen edo ez; txistua bertan jo nuen lehenengo aldia, ordea, atzo gertatu izan balitz bezala gogoratzen dut. Bihotzaren taupada azkarrak, behatzetan sentitzen nuen urduritasun hura... eta barnea iraultzen duen sentimendu hori, hitzetan jarri ezin dena, azaltzea ezinezkoa dena... bizitzea, sentitzea, beharrezkoa dena.
Aurten urrun izango naiz suak eta itzalak Beasaingo plaza hartzen dutenean. Urrutiegi, Marik gure festei hasiera ematen dienean. Aurten Londresen aurkituko naizelako. Eta... zergatik ez? Aurten 'sorgin dantza' entzungo delako Hyde Park-en edo Trafalgar Square-n, ni bezala munduan zehar galduta dauden Beasaindar guztiak elkartzeko asmoz.
Ez delako beharrezkoa Beasainen egotea Maitzaren 14an Mari gertu sentitzeko, bakoitzak bere barnean su hori, Beasaindar izateak eragiten digun indar eta mirespen hori, gogoratzen jarraitzen badugu.

A 1307 KILÓMETROS DE BEASAIN

Viernes por la noche. 14 de Mayo. De improviso, todas las luces del centro se apagan. Beasain queda envuelto, no sólo por la penumbra, sino por un halo de leyenda difícilmente descriptible. El fuego se aproxima desde todas direcciones. La gente aguarda impaciente en la plaza. Los gritos de los portadores de las antorchas se mezclan con el retumbar de los tambores. Y laten al mismo tiempo cientos, miles de corazones. El momento se acerca. Apenas un suspiro después de que se extinga el eco de la percusión, el txistu comienza a sonar. 'Sorgin dantza', le llaman: el baile de las brujas. Y esas 'brujas', esas personas anónimas que danzan alrededor de la gran pila de madera, y aquellos que bailaron con anterioridad, sienten la emoción de ser parte de todo esto, de haber nacido aquí, de vivir aquí: de ser Beasaindarra.

La canción se vuelve más y más rápida, y nada más acabar, el coro entona una canción; la canción. No importa cuántas veces la haya escuchado (y cuántas veces más la escucharé), siempre consigue que ese escalofrío recorra mi espalda, que mi corazón (y el de tantísimos otros) se aceleren.

Obedeciendo al grito de 'sua!sua!', alguien prende fuego a la madera, y nadie puede apartar la vista de las llamas que parecen danzar al son de los txistus que callaron hace un momento. No al menos hasta que se escucha un primer irrintzi, y

todas las cabezas se giran hacia el oscuro cielo. Ahí viene Ella, como cada año, acudiendo a la llamada del pueblo de Beasain. Mientras desciende, los niños (y no tan niños) recuerdan sonrientes la historia que ha ido pasando de generación en generación. Y que seguirá haciéndolo siempre; Murumendiko Mari.

Y una vez su figura desaparece en el vistoso fuego, las miradas se vuelcan hacia el balcón del ayuntamiento, donde nuestra Mari (¿Quién si no?) da comienza a las fiestas, a nuestras fiestas. Todos sentimos ese estallido de júbilo cuando Ella grita: Gora Beasain! Y todo el pueblo, con una sola voz, responde: Gora...!

No habrá ninguna bajada de Mari este año para mí, ya que viviré este día (esta noche) desde fuera, desde el mismísimo corazón de Londres. Y al darme cuenta de ello, no puedo dejar de pensar en todas las veces que la he presenciado, que he estado allí, y pensaba que nada (ni exámenes, ni trabajos, ni cualquier otro tipo de impedimento) me apartarían de presenciar su llegada.

No recuerdo la primera vez que mis padres me llevaron a verla, pero recuerdo perfectamente la primera vez que fui a tocar el txistu. Al subir al quiosco, cuando la plaza ya comenzaba a abarrotarse de gente, creí que mis piernas fallarían. Estaba tan nerviosa que sabía que no sería capaz de atinar con las notas, y me preocupaba muchísimo que pudiera estropear aquel halo de emoción que envolvía a todo el mundo. Por si fuera poco, confiaba en poder clavar mi mirada en la partitura para poder concentrarme, pero después me di cuenta de que al apagar todas las luces, aquello sería imposible. Mi corazón latía tan alto que creía que los demás serían capaces de escucharlo. Y de pronto, llegó el momento, y mis dedos bailaron como si alguien los guiara, como si hubiera nacido para ese momento, como si por el mero hecho de ser Beasaindarra aquella canción la llevara escrita en el alma desde mucho antes de que decidiera volverme txistulari.

He intentado explicar lo importante que esta noche es para mí una infinidad de veces, pero la gente que me rodea no lo comprende. Además, al no contar con un vídeo que poder mostrarles (¿para cuándo un vídeo oficial de nuestra bajada de Mari para ilustrar nuestras palabras?), a muchos les es imposible siquiera imaginarse de lo que estoy hablando. Finalmente, me he dado cuenta de por qué ocurre esto: la bajada de Mari no es un espectáculo que haya que entender; es algo que hay que sentirlo, vivirlo.

Este año en particular, al estar como ya he dicho antes en Londres, he decidido hacerle una promesa a nuestra Mari: que este 14 de Mayo, el eco de 'sorgin dantza' resonará por todo Hyde Park, tal vez por primera vez. Y tal vez, no por última.

TOLDOS OLANAK
AGUSTIN S.L.
Tel. 943 88 65 58 • Fax 943 88 65 98 • Pol. Zubi-Erreka, 42 • LAZKAO

Fidel Altuna

LETAMENDI / LETEMENDI ETA BEASAINGO BESTE LEKU IZEN BATZUEN INGURUAN

Tomando como excusa las señales con los nombres de los caseríos que el Ayto. colocó el pasado año en Beasainmendi, y en particular la señal instalada en el acceso al caserío LETAMENDI / LETEMENDI, en este trabajo se comentan algunas de las denominaciones que figuran en esas señales, así como algunos otros topónimos de Beasain. Sobre todo, la pregunta a la que se pretende responder es la siguiente: ¿hay que utilizar en esas señales, o fuera de ellas, los nombres de lugar tal y como han llegado hasta nosotros, o hay que recuperar la forma que tuvieron tiempo atrás? Por ejemplo, ¿tenemos que llamar UBI a la casa de ladrillo rojo que está frente al paseo de las Pérgolas, o URBI, como se llamó en tiempos pasados? El autor piensa que, en principio, no es correcto querer recuperar las formas que esos nombres tuvieron antiguamente, e intenta explicar las razones que le llevan a pensar de esa manera.

Urtebete pasatxo-edo izango da gutxi gorabehera Beasaingo Udalak Beasainmendiko baserrien izenak adierazteko seinaleak jarri zituela, eta Udalaren asmoa delarik, aditzera dudanez, herriko beste alderdi batzuetan ere antzeko zerbait egitea, dagoeneko jarrita dauden seinaleez zenbait ohar egitea pentsatu dut. Baserrien izenak ikusi ahala «bote prontoan» burura etorri zaizkidan zenbait ideia dira ondoren botako ditudanak, baina ez dira, inondik ere, toponimian aditua den norbaitenak; horregatik, ondo esandakoak kontuan hartzea espero dudan bezala, gaizki esandakoei gehiegi ez erreparatzea eskatuko nizueke, eta, ahal bada, nire hutsegiteen berri ematea.

Kontua da jarritako seinale horietan ageri den izenetako batek atentzioa eman didala idatzita dagoen moduagatik. LETAMENDI / LETEMENDI baserriaren izena da berori. Nolabait esateko, orain arte ez bezala idatzi da, joan den aspaldian ohikoa zenetik desberdin, eta horren aitzakia hartuta jardungo dut lerro hauetan. LETAMENDI delarik etxe horri gaur egun beasaindarrok eman ohi diogun izena, LETEMENDI irakurtzen da iaz ipini zituzten seinale horietan, askoren harridurarako. Aukera okerra dela pentsatzen dudalarik, nire iritzi honen arrazoiak azaltzen saiatuko naiz jarraian, eta Beasaingo beste leku izen batzuez ere zerbait esateko aprobetxatuko dut bide batez.

Ate gainean LETAMENDI irakurtzen da; LETEMENDI, berriz, Udalak jarritako seinalean.

SEINALEETAN ZERGATIK LETEMENDI?

Seinalean LETEMENDI irakurri ondoren honetaz zerbait jakin zezaketen pertsona batzuei galdetu diet gai honen inguruan, eta ulertu dudanaren arabera hiru arrazoi egon daitezke aukera hori egiteko. Hiru arrazoi horietan bat da nagusia, aurrena aipatuko dudana, eta besteak, nolabait, argumentu nagusi horren morroi edo osagarri dira. Hona hemen eman zaizkidan hiru arrazoi horiek:

1) «LETEMENDI da baserri horren izen zaharra, LETAMENDI baino lehenago paperetan ageri den etxearen izen originala». Tira, bai. Esan dezagun ideia ez dela guztiz okerra. LETEMENDI izena LETAMENDI baino lehen ageri da agirietan, bai, baina hor bukatzen da argumentu honekiko nire adostasuna. Hortik aurrera gauza asko legoke argitzeko eta zehazteko, baina luze samar joko dit honetaz pentsatzen dudana azaltzea, eta, horregatik, nahiago dut azalpen horiek gerorako uztea. Oraingoz nire iritziaren bi ideia nagusiak bakarrik botako ditut, laburbilduta: LETEMENDI izena zaharragoa izateak ez duela derrigor esan nahi berori berreskuratu behar denik, eta, bestalde, LETEMENDI zaharragoa izan arren ez dela etxe horri ezagutzen zaion izenik zaharrena.

2) «LETEMENDI izen zaharra erabili da oraintsu arte edo erabiltzen da oraindik». Ondo da. Sekula ez dut nik halakorik entzun, baina egia izango da, inondik ere. Ukaezina da, dena dela, LETAMENDI dela izen hori ezagutzen duten beasaindar gehienek erabiltzen duten aldaera, eta, bestalde, nola dakigu LETEMENDI erabiltzen duten horiek aldaera zaharra mantendu dutela? Beharbada LETAMENDI > LETEMENDI aldaketa fonetikoaren ondorio besterik ez da beasaindar horiek ahoskatzen dutena... Aspaldian BERAZIARTU eta ETXAZARRETA esaten zirenak,

adibidez, gaur egun BEREZIARTU eta ETXEZARRETA bihurtu dira gehienbat. Zergatik ezin da pentsatu hizpide dugun kasuan ere gauza bera gerta zitekeela?

3) «Lehenago LETEMENDI esaten zela badakigu, eta LETAMENDI geroago eskribauen eraginez-edo sortua izan daiteke». Egia da eskribauek tarteka halako «aberiak» egin izan dituztela, eta LOINATZ izena dela eta geroago esan nahi nuke horretaz zerbait, baina LETAMENDI hemen herrian bertan sortua izana ere baliteke. Adibidez, BIDAURRE idazten zuten XVI. mendean gaur gehienbat BIDEAURRE esan ohi den etxearen izena. Baina norbaitek ziurta al lezake hor kanpoko eraginen bat egon dela? Gainera, eta dena dela, guregana iritsi den izen bakoitzak bere historia propioa izan ohi du, eta LETAMENDI agiri ofizialetan sortutako aldaera balitz ere, eskribauek kanpotik ekarria, ezaugarri hori hitz horren izaeraren zati da, eta tartean beste arrazoi pisuzkoagoren bat ez den bitartean izena eta bere historia bere horretan onartzea litzateke normalena, eta dagoen bezala bakean uztea. Hizkuntza batean dena ez delako perfektoa eta lineala... Bihurgune eta zeharbide asko egon ohi baitira, izan ere, denboraren bideetan.

Aspaldi batean, LOINATZ leku izenari beste era batera ere esaten zitzaion: LOIATZ.

LOINATZ ETA LOIATZ: IZEN BERAREN BI ALDAERA

Behin eskribauen balizko esku sartzeak aipatzen hasita, eta Beasaingo jaietan gaudenez, LOINATZ izenaren inguruan ohar txiki bat egin nahi nuke. Seguru asko nire aurretik besteren batek edo batzuek ere esandakoa izango da, baina ez dut horren berririk, eta barkatuko didazue bestek jada botatako ideiak errepikatuz aspertzen bazaituztet.

San Martinen jaioterriari buruz Beasain eta Bergara herrien artean aspaldi egon ziren eztabaidetan behin eta berriz aipatu ohi zen LOINATZ izenaren baliokide bat gogoratu nahi nuke: «LOYÀZ es lo mismo que LOYNÀZ» irakur daiteke, adibidez, aipamen horietako batean. San Martin jaio zenean, XVI. mendean, LOINATZ eta LOIATZ izen berbera lirateke, ondorioz. Zergatik erabiltzen dugu guk lehenengoa bakarrik? Zergatik galdu da ia erabat bigarrena? LOI(A)TZENE baserriaren izenean izan ezik eta munduan barrena gaur egun oraindik LOYAZ deitura daramaten garai bateko beasaindarren ondorengoetan izan ezik, bigarren aldaera hori ez baita gaur erabiltzen. Horren arrazoia bilatzen hasita, ez dirudi oso zaila zer gertatu den antzematea. LOINATZ eta LOIATZ bikotea LAZKANO eta LAZKAO bikotearen eta tankera bereko beste hainbat adibideren parekoa dugu erabat: LOINATZ eta LAZKANO forma arkaikoak dira eta (erdarazko) testu idatzietan erabili izan diren bakarrak; LOIATZ eta LAZKAO, berriz, euskarazko forma «naturalak» lirateke, euskarak bere eboluzio normalean eman dituenak. Euskaraz LAZKAO mantendu zen bitartean –deitura gisa LAZKANO dugula ahaztu gabe– LOINATZ nagusitu zen bai leku izenarentzat eta bai deitura gisa ere, eta LOIATZ baztertuta geratu zen. Eta zergatik hori? Beasainen LOINATZ erabiltzen badugu, seguru asko eskribauen eta oro har tradizio idatziaren pisua egongo da hor tartean. LETAMENDI izenaren kasuan baino askozaz nabarmenago, gainera. Eskribauen «hutsak» zuzentzearren LETEMENDI berreskuratu behar dela erabakitzen baldin badugu, beraz, eta koherenteak izatera, LOIAZKO Ama Birjina eta antzekoak erabiltzen hasi beharko ginateke.

TOPONIMOEN ALDAERA ZAHARRAK BERRESKURATZEAZ

Lehenago zintzilik utzi dudan gai honetara itzul gaitezen. LETAMENDI / LETEMENDI bikotean bigarrena zaharragoa dela baldin badakigu, bigarren hori erabiltzen hasi behar al dugu berriro? Nire iritziz, lehen esan bezala, ez. Beasaingo euskaldunek joan deneko bizpahiru mendeetan LETAMENDI eta LOINATZ erabili badituzte, etengabe, toponimo horiek erabat erroturik daude bertako euskaran eta ez du zentzurik aldatzen ibiltzeak. Eta gainera, ez da hori egin ohi dena. Adibidez, GOIZUETA, AZKOITIA, DONOSTIA edo ORREAGA lehenago beste era batera zirela baldin badakigu, zer egin behar dugu? Garai batean zuten itxura itzuli behar al diegu berriro? GOIZUBIETA, AITZGOITIA, DONESEBASTIAN edo ORIERRIAGA gisakoak berpiztuko al ditugu? Erantzuna begibistakoa da, eta LETAMENDI ere bere horretan uztea da, beraz, logikoena.

Bestalde, atentzioa eman dit eta ez dut oso ondo ulertzen zer dela eta berreskuratu den aldaera zaharra bakar-bakarrik LETEMENDI izenaren kasuan. Udalak jarri dituen seinaleetan bai baitira beste pare bat izen behintzat garai bateko agiri zaharretan, XVI. mendean, bestela idazten zirenak. Lehenbizi, (H)ERAUSKAIN zeritzon gaur egun ERAUSKIN esaten diogun auzoari, eta GAINTZARAN esaten zitzaien, berriz, guretzat GANTZARAIN diren baserriei. Lehenengo begi-

ki duenak (H)ERAUSKAIN eta GAINTZARAN idaztea espero zitekeen. Nire iritziz ez litzateke egokia izango, baina bai, gutxienez, koherentea.

Ulertzen ez dudan beste kontu bat. Demagun LETEMENDI izenaren kasuan bidezkoa dela aldaera zahar hori berreskuratzea. Zergatik LETEMENDI aukeratu, eta ez LEETEMENDI, bigarren hau baldin bada bietan zaharrena? Hori bai, LEHETEMENDI idatzi beharko litzatekeela suposatzen dut, IHURRE bezala, tarteko -H- letraren bitartez hiatoa (bi bokaleen arteko etena) markatzeko. Ezaguna da Etxepare euskal idazleak Bernard LEHET delako bati eskaini ziola bere liburua, baina, horren urrutira joan beharrik gabe, gogora dezagun Gipuzkoan bertan LEHETE deitura guztiz arrunta zela garai batean. LEHETEMENDI idaztean ez genuke beraz ezer berririk asmatuko. Baina berriro diot: behin izena aldatzen hasita, eta izenari aspaldi zuen itxura itzultzea baldin bada kontua, zergatik utzi ote da aldaketa erdi bidean?

BEASAINGO BESTE ZENBAIT LEKU IZEN

LETEMENDI izenaren kasu honek gogorarazi dit ez dela lehen aldia Beasainen antzeko zerbait ikusten dudana. Badira urte batzuk, izan ere, beasaindarrok UBI izenarekin ezagutzen genuen izena aldatu eta URBI bataiatu zutela, eta URBIALDE ere bide beretik sortua dela esango nuke, Posta Bulegoa eta Lankide Aurrezki Kutxa dauden etxe multzo horri guztiari izena emateko. Hasieran esan bezala toponimia kontuetan aditua ez naizelarik, esango nuke Beasainen joan deneko hiruzpalau mendeetan UBI eta UBIALDE bakarrik erabili direla leku horiek izendatzeko (susmagarri samarra iruditzen zaidan atzo goizeko agiriren bat kenduta), eta XVI. mendeko agiri batzuetan URBI forma zaharra agertzeak ez du inondik ere justifikatzen, gorago aipatu diren arrazoiak direla bitarte, berriro izen zahar hori berpiztea. Eta egitea erabakitzen badugu, berriro diot, izan gaitezen koherenteak eta egin dezagun gauza bera kasu guztietan. Adibidez, «zuzendu» ditzagun UBIÑARTE > URBIÑARTE eta MANDUBIA > MANDOURBIA. Gainera, U(R)BI osagaia dutenak ez ezik beste hainbat izen ere «zuzendu» beharko ditugu: PAGORRIAGA > PAGOGORRIAGA, LAZKAIBAR > LAZKAOIBAR, etab.

Baliteke UBI(ALDE) > URBI(ALDE) aldaketa horrekin lotuta egotea herrian bertan den eta azken urteotan ezaguna egin zaigun toponimo bat: URBIETA. Noizbait burutik pasatu izan zait beharbada bi toponimoen idazkera hurbildu nahi izan duela norbaitek. Baina hasierako elementua, U(R)BI, berbera izateak ez du esan nahi biak berdin-berdin idatzi behar ditugunik: UBIDE eta URJAUZI aldi berean erabiltzen ditugun bezala, UBI(ALDE) eta URBIETA batera erabiltzeko ez baitago, berez, inolako arazorik.

LETEMENDI eta URBI(ALDE) gisakoak zergatik bultzatzen ote diren, galdera horri erantzuteko garaian, aspalditik euskaldunok etimologiarekiko izan dugun zaletasunarekin lotuta dagoela iruditzen zait. Aspalditik dago Euskal Herrian leku izenak garden bihurtzeko halako grina bat, toponimoen jatorria zein den agerian uzteko mania bazter guztietan ageri zaiguna: AIZPITARTE gisako izenen bat duen etxearen jabeak AITZBITARTE jarriko dizu etxe atarian ondo ikusteko moduan, Arabako ASPARRENA inguruan kultura elkarteren bat sortzekoa bada ez harritu AITZBARREN bataiatzen badute, etab. Beasainen ere baditugu halakoak: AIZKORRI eta AITZORROTZ mendietatik AITZ-GORRI eta AITZZORROTZ elkarteak sortuak zaizkigu... Honetaz dakidan apurragatik, gainera, badirudi euskaldunok oso berezkoa dugun joera dela honakoa. Gaztelaniaz hitz egiten dutenek ez dirudi halako beharrik sentitzen dutenik: adibidez CIENFUENTES eta NAVADELMORAL bezalako izenen korrupziotik sortuak dira historikoki CIFUENTES eta NAVALMORAL, baina hauek konplexurik gabe onartzen dira eta ez dirudi inork hitzaren jatorrira itzultzeko gogo berezirik sentitzen duenik.

Bestalde, leku izenen forma zaharrera itzultze horretan beste problema txiki bat ere badago. Hitzaren forma zaharra dokumentatua badago edo ziurtasun osoz ezar badaiteke, gaitz erdi: eztabaidatu dezakegu ea zilegi al den forma zahar hori berriro erabiltzen hastea ala ez, baina tira, gutxienez oinarri sendo baten gainean ari gara. Baina leku seguruan ibiltzen ote gara beti? Ez, inola ere ez. Hitzen etimologiaz aritzean espekulazio ugari egin ohi da eta gerta daiteke izen baten forma zahartzat jo dugun hori ez hanka ez buru gabeko teoria ustela izatea.

Bada irudipena daukat, hain zuzen ere, Beasaingo leku izen batzuei egin zaizkien aldaketetako zenbait arinkeria pixka batez egin ote diren, eta hipotesi okerrak edo gutxienez zalantzazkoak ontzat emanez. Adibidez, Udalak ipini dituen seinaleetan lehengo UNTSAIN orain UNTSARAIN ageri da idatzita. Halaber, seinaleetan ez baina Udalak banatutako planoren batean MARIARAS > MARIBARATZ aldaketa egin da, eta UBILLOS > UBILLOTZ bihurtu dute (URBILLOTZ ere «zuzendu» zitekeen, behin horretara ezkero), eta gutxienez horietako bat, MARIBARATZ, prentsan ere ikusi izan dut gainera horrela idatzita. Nik dakidala, ordea, ez UNTSARAIN, ez MARIBARATZ, ez UBILLOTZ ez daude dokumentatuta konfiantza minimo bat ematen duen inongo agiritan eta, gainera, egindako «zuzenketa» horietako batzuen atzean antzematen diren etimologiak ez dira, beti ere nire iritziz, batere seguruak. Jakina, litekeena da ni, nire ezjakintasunean, deskuidatuta egotea, lehenago ere esana dudanez ez bainaiz ni toponimia kontuetan aditua, eta horregatik, gustura jakingo nuke, kuriositatez, ea erabaki horiek zein oinarriren gainean hartu diren, bada, lehenengo begiratu batera niri iruditzen zaidan bezala espekulazio hutsa baldin badira, ez zait batere

egokia iruditzen inoren irudipenak oinarri hartuta izenak aldatzen ibiltzea.

Eskuinean UNTSAIN, lehengo seinale zaharrean; UNTSARAIN, berriz, azkena jarritakoan. Lehenengoa bakarrik dakar, bere izendegian, Euskaltzaindiak.

Galdetzen diot neure buruari, bestalde, ea aurrekoak bezalako aldaketak egingo ote genituzkeen pisu handiagoko beste izen batzuekin. UNTSAIN > UNTSARAIN bezalako aldaketak egitea erosoagoa delako, bistan denez, BEASAIN edo LOINATZ aldatzea baino, lehenengoa erabilera mugatuagoko toponimoa den aldetik. Esaterako, BEASAIN izenarentzat jatorri zenbait proposatu izan direlarik, batzuetan fundamentu gehiegirik gabe eta beste batzuetan oinarri gehiagorekin –BASOGAIN eta BERASAIN, adibidez– ausartuko ote ginateke proposamen horietakoren bat onartzera eta, ondorioz, herriaren izena aldatzera? Ezezkoan nago. Hipotesi hutsen gainean ari garelarik –hipotesi ahulagoak batzuk eta beste batzuk ziurragoak, baina denak hipotesi, azken batean– iruditzen zait nekez aldatuko genukeela herriaren izena beste izen hipotetiko bat ezartzeko. Besteak beste, onartu dugun hipotesia okerra zela froga daitekeelako edozein unetan, eta berriro ere herriaren izena aldatu beharrean gerta gaitezkeelako. Hor ditugu, urrutirago joan beharrik gabe, ondoko herriko gure adiskideak, ORDIZIA ala ERDIZIA, beren herriaren garai bateko izena zein ote den ziur ez dakitela. Horrenbestez, bada, toponimo «nagusiak» ukitzeko kontuz ibiltzen bagara, toponimo «txikiekin» ere ez al genuke arreta berbera erabili beharko?

TXINTXURRETAKO TENPLARIOEN KASU HARRIGARRIA

«Historieta toponímica». Horixe zuen izenburua aspaldian prentsan irakurri nuen artikulu batek, eta bertan jartzen zuena laburtuko dut hasteko, izan ere ezin egokiago datorkio geroago aipatuko dudan Txintxurretako kasuari.

Orain dela hogeita hamar bat urte bi adiskidek, beren ibileretako batean, burdinazko gurutze bat aurkitu omen zuten denbora batez ijitoen bizileku izandako zubi azpi batean. Gauza jakina da kontua da gurutze hori bertan utzi zutela, edo ahaztuta, edo baliorik eman ez ziotelako. Bi adiskide horiei, bada, gurutze hori hartu, eta Pagoeta parkeko harkaitz batean kokatzea bururatu zitzaien, inor gutxi ibiltzen zen sasi eta sastrakaz beteriko paraje batean. Horrela egin zuten, eta hantxe gelditu zen gurutze hori, harkaitz hartan. Denbora pasatu zen, hamabost bat urte-edo, eta adiskide haietako batek hara non irakurtzen duen honako testu hau Pagoetako parkeari buruz Diputazioak argitaraturiko gida moduko batean: «Burdingurutze: lugar que recibe el nombre de una pequeña cruz de hierro que se sitúa en el borde del sendero y que señalaba el lugar desde donde se lanzaban los conjuros para bendecir las cosechas y alejar los peligros que sobre ellas se podrían cernir». Bestela esanda: norbaitek leku horri izena asmatu zion, eta, horrekin konforme ez, nonbait, eta istorio bat ere erantsi zion, gainera.

Euskal Herrian oso ohikoa izan da, literatur generoa ere bai, ia-ia, leku izenen inguruko ipuinak asmatzea. ARANTZA(N)ZU izenaren inguruko istorioa, adibidez, nahiko ezaguna da gure artean, heraldika munduan ere ugariak dira halakoak, etab. TXINTXURRETA izenarekin ere, bada, antzeko zerbait egin dela dirudi. Garai bateko TXINTXURRETA baserria gaurko egunean CAF enpresa dagoen lursailetan zegoen, eta izen bera darama orain ere Senpere merkataritza zentroaren parean, errepideaz beste aldera, lantegiak eraikitzeko baserri zahar hura bota zenean haren ordez eraiki zen etxeak. TXINTXURRETA izena zalantza handirik gabe ZINTZUR hitzarekin dago lotuta, hau da, toponimian estugune bat-edo adierazi ohi duen hitzarekin. Bestelako zerbait irakurri dut aurten, ordea, Udalaren argitalpen batean, eta berori aipatu nahi nuke idatzi honetan. Maiatza izango da lerro hauek argitaratzen direnean, eta Beasaingo etxe askotako paretetan –baita gurean ere– Udalak aurten banatu duen egutegia egongo da zintzilik (egutegi oso politak iruditu zaizkidala esateko aprobetxatuko dut, bai aurtengoa eta bai aurreko urteetan atera direnak ere). Bada maiatzari dagokion orria garai bateko TXINTXURRETA etxe horri eskainia dago, eta honako testu hau irakur daiteke argazkiaren barrenean: «ZIN ZUUR ETA. Juramentu zuhurrak egiten ziren tokia. Tenplarioen kokaleku izan zen eta fedegabeak hiltzeko tokia». Antzeko etimologia oker gehiago ere bada egutegi horretan, baina TXINTXURRETA etxearena iruditu zait nabarmenena, bada izenari ezinezkoa den azalpena emateaz gainera, asmatua dirudien istorioa erantsi zaio, ez baitzait iruditzen tenplarioen kontu horrek inolako oinarri historiko sendorik izan lezakeenik, eta, horrela izatera, lehen aipatu dudan Pagoetako beste haren antzeko kasua izan daiteke.

Bakarrik espero dut TXINTXURRETA ez duela inork ZINTZUHURRETA edo antzeko zer-

Lazkaomendiko seinaleetan etxeen izenak bi eratara datoz adierazita: normalean jendeak esaten dituen moduan, eta idazteko orduan ipini ohi diren moduan.

AMAIERA: SEINALEEN INGURUAN ZERBAIT GEHIAGO

Eta bukatzera noa. Bukatu, gainera, orain arte esandako gauzetatik pittin bat desberdina den kontu batekin bukatu nahi nuke. Jakina da leku izenek askotan izendapen «oso» bat izaten dutela, paperetan-eta agertu ohi dena, eta beste ahozko izendapen bat, aurrekoaren laburdura-edo, normal hitz egiterakoan erabiltzen dena. Adibidez, PAGADIZABAL eta AGERREZABAL etxeen izenak PAIZAL eta ARTZAL bihurtzen dira edozein beasaindarren hizketa arruntean, eta horrelako beste hainbeste. Nire zalantza honako hau da: izendapen herrikoi horiek ez al lirateke nola edo hala agertu beharko jartzen diren seinaleetan? Zalantza Lazkaon jarri zituzten seinaleetako batzuk ikustean sortu zitzaidan, han, izan ere, izenaren bi aldaerak jarri dituzte: lehenengo lekuan izenaren forma arrunta jarri dutela dirudi, gainera, eta ondoren, letra txikiagoz, izenaren forma «osoa» irakur daiteke: MAITTI / MARIATEGI, etab.

Niri iruditzen zait ez dela horren ideia txarra. Lehenengo lekuan izendapen «osoa» jarriko nuke nik, hori bai, eta ondoren bestea. Izendatzeko modu honek duen abantaila nagusia da, etxeari deitzeko bi moduen berri emateaz gainera, bi izendapenak identifikatzeko orduan bidea errazten duela. Esate baterako, UBILLOS / IBULUS bikotea hartzen dugula, Beasainen jende asko dago bigarrena bakarrik ezagutzen duena, IBULUS, idatzian ere hori erabili izan baita behin baino gehiagotan, eta UBILLOS ikusten dutelarik ez dute berehalakoan identifikatzen edota zalantzak dituzte kokatzeko. Alderantziz, berriz, UBILLOS bakarrik ezagutzen duenari ez lioke kalterik eragingo horri herritar gehienek IBULUS deitzen diotela jakitea. Horrela, bada, UBILLOS / IBULUS bezalako hainbat bikote edukiko genituzke: ARANTZAMENDI / ANTXAMENDI, ARANBURU / ANBU, UBIÑARTE / OÑARTE, IMIATEGI / IMITTEGI, ERAUSKINZAR / EUSKINTZAR, etab.

Eta azkenik, ez da ahaztu behar inoiz etxe batek bi izen desberdin izan ohi dituela: GOIKOETXE / MATEONE, BEREZIARTU / BEATXURRETA, etab. Seinaleetan izendapen bikoitza erabiltzea, hau da, bi izenen berri ematea, honelako kasuetan ere mesedegarri izango litzatekeela deritzot.

Espacios (casi) infinitos

Los sistemas de archivo y almacenaje de Eun van más allá de los convencionales del mercado, aportando soluciones no sólo para el ahorro de espacio, sino para la creación del mismo. Sistemas de vanguardia que multiplican el espacio útil mediante una inteligente aplicación de la tecnología y el diseño de estructuras ergonómicas.
Sistemas que mediante la mejora de la gestión de la documentación suponen un claro ahorro de tiempos y espacios, y por lo tanto de costes.

(la) Amaierarik gabeko espazioak

Eun enpresaren artxiborako eta biltegiratzeko sistemak merkatuan dauden ohikoetatik haratago doaz, eta espazioa aurrezteko ez ezik lekua lortzeko ere soluzioak ematen dituzte.
Teknologia egoki erabiliz eta egitura ergonomikoaren diseinua aplikatuz espazio erabilgarria gehitzeko sistema berritzaileak.
Dokumentazioaren kudeaketarako sistemak hobetuz denbora eta espazioa aurreztuko duzu eta ondorioz, kostuak ere bai.

erías eun s.a.
e, 17 - Apdo. 82
sain (Gipuzkoa) • Spain
114 907
114 908
al@eun.es

adrid s.a.
ue, 27
nta Ana
Vaciamadrid (Madrid) • Spain
70 599
1 13 07
id@eun.es

xico s.a. de c.v.
. Desp. 501
ómoc, c.p. 06500

eun grupo
Innovación en Sistemas de Archivo y Almacenaje

eun BIBLIO eun grupo

programa de bibliotecas
EL ESPACIO MÁS INTELIGENTE

eun mobile eun grupo

estanterías móviles
EL ESPACIO EN MOVIMIENTO

eun Matic eun grupo

estanterías móviles motorizadas
EL ESPACIO EN UN CLICK

eun TRONIC eun grupo

estanterías móviles con control electrónico
LA TECNOLOGÍA APLICADA AL ESPACIO

UN LIMACO DE ORO CON SABOR A MORCILLA
ODOLKI KUTSUKO URREZKO BAREA

Juantxo Unanua

Las Cofradías Gastronómicas surgieron el País Vasco más en concreto en Iparralde, a finales de la década de los años 50 del pasado siglo. Fue una iniciativa social y gastronómica que se extendería como reguero de pólvora.

A los pocos años nacía la Cofradía Vasca de Gastronomía y tomando como eje de actividad un ingrediente o elemento culinario fueron naciendo entidades hermanas, a la largo y ancho de la geografía vasca y entre ellas la de la Morcilla de Beasain.

La Cofradía de la Morcilla de Beasain es noticia y buena, ha sido nominada por la Comisión de Cultura de la Sociedad Beti Bizi como Limaco de Oro-2010. Para hacerse con el preciado animalillo, las bases, que premian con el galardón instituido en 1992 señalan que «al galardón podrán optar todas las personas, instituciones o colectivos que estén trabajando por y para Beasain, llevando el nombre del municipio y dándolo a conocer a través de su actividad fuera de él.

Hay que rebobinar hasta el año 1985 para llegar a los orígenes de la Cofradía beasaindarra que en estos 25 años ha empujado a que la excelente 'tripa rellena beasaindarra' sea modelo, haya creado escuela, y marcado pautas en la elaboración de la misma. Ha marcado estilo y es modelo de ela-

Gastronomia Kofradiak aurreko mendeko 50eko hamarkadaren amaieran sortu ziren Euskal Herrian; Iparraldean, zehazki esanda. Bolbora-arrastoa bezala zabaldutako gizarte- eta gastronomia-ekimena izan zen hura. Urte gutxiren buruan, Gastronomiazko Euskal Anaiartea eratu zen, eta, sukaldeko elementu edo osagairen bat ardatz modura hartuta, antzeko erakundeak sortuz joan ziren Euskal Herrian zehar; horien artean, Beasaingo Odolkiaren Kofradia.

Beasaingo Odolkiaren Kofradia hori albisteiturri da, eta pozgarria gainera, Beti Bizi elkarteko Kultura Batzordeak 2010eko Urrezko Barea izendatu duelako. 1992an eratutako sariko oinarrietan adierazten denez, "Beasainen alde lanean ari diren eta udalerriaren izena bere lanaren bitartez ezagutarazten duten pertsonak, erakundeak edo taldeak bakarrik izango dute saria (animalia baliotsua, alegia) eskuratu ahal izateko aukera".

1985. urtera arte atzeratu behar da Beasaingo Kofradiaren hastapenetara heltzeko. Hogeita bost urte horietan ahalegin handiak egin ditu "Beasaingo hestebete" bikaina eredu bilakatu, jarraitzaileak sortu eta odolkia egiterakoan jarraibideak ezartzeko. Estiloa ezartzeaz gain, odolkia egiteko eredua ere finkatu du geroz eta urriagoak diren odolkigileentzat.

boración para los cada vez menos chacineros que la trabajan.

Con el buen trabajo llevado a cabo por los elaboradores y con el empuje de la Cofradía beasaindarra se ha logrado que aquella odolki que apenas hace unas décadas justamente quedaba como uno de los 'sacramentos de las alubias de Tolosa, hoy día en pleno S. XXI es ingrediente elemento de mil recursos paseándose, como señora que es por la alta cocina, que cuente con recetario propio y que es eje de buen número de elaboraciones de la conocida como gastronomía en miniatura.

Pero ¿cómo surgió al idea de crear la Cofradía de la Morcilla de Beasain?

AQUEL OTOÑO DE 1985

Hay que rebobinar y situarse "en el otoño del año 1985 cuando el recordado campo de Atocha acogía las grandes hazañas de la Real Sociedad", tal como señala el documento que se guarda en los archivos de la Cofradía

"Tras el partido en Atocha de la Real Sociedad nos reunimos a merendar en el Bar Ormazabal de la donostiarra calle 31 de agosto, la cuadrilla que habitualmente lo hacíamos después de los partidos. Ese día, unicamente, nos juntamos 5 personas, entre ellos Txiflo Apalategui José Luis Zaldua, Ulpiano Vigil Escalera y Fernando Pérez de Calleja. Tras hablar de muchas cosas y ultimar los comentarios futbolísticos pasamos a renovar proyectos e ideas. Uno de los allí presentes llevaba mucho tiempo dando la murga sobre la idea de identificar un producto de consumo con Beasain dentro de un ámbito lúdico-cultural para que no se nos conociera unicamente como vagoneros. Se centra la idea del producto sobre la Morcilla que ya muchos de nuestro entorno conocían sin haber nacido en Beasain. Uno de los tertulianos comenta que dos de ellos son miembros de la Cofradía de San Roque en Llodio y que el 16 de agosto se reúnen en la citada localidad en los pórticos de la Iglesia Parroquia para celebrar el patrón

Los reunidos pensamos que por temporada se podía dar una relación entre la Morcilla y San Martín de Loinaz así como la posibilidad de utilizar el pórtico de la Iglesia Parroquial para la celebración del evento. Salimos decididos a que el 5 de febrero de 1986 fuera la fecha objetivo del Primer Capítulo de la Cofradía. De esta manera

Odolkigileek egindako lan bikainari eta Beasaingo Kofradiaren bultzadari esker, duela hamarkada batzuk Tolosako babarrunen sakramentuetako bat besterik ez zen odolki hura, milaka baliabide dituen osagai bilakatu da XXI. mende honetan; horrezaz gain, hor dabil goi mailako sukaldaritzan bere errezeta-liburu eta guzti, eta jaki ugariren ardatz ere bada miniaturako gastronomia delakoaren barruan.

Nola sortu zen, ordea, Beasaingo Odolkiaren Kofradia eratzeko asmoa?

1985EKO UDAZKENA

Atzera egin eta, sorrera kokatzerakoan, gogoan hartu "1985eko udazkena, Atotxako futbolzelai gogoangarria Errealaren balentria handien lekuko zenean"; horrela ageri da Kofradiaren artxiboetan gordetako agirian.

"Errealaren Atotxako partidaren ondoren, Donostiako Abuztuaren 31 kaleko Ormazabal tabernara joan ginen ohiko lagun-taldea, partida ondoko mokadutxoa egitera. Egun hartan 5 lagun bakarrik elkartu ginen, horien artean Txiflo Apalategi, Jose Luis Zaldua, Ulpiano Vigil Escalera eta Fernando Pérez de Calleja. Hainbat gai jorratu eta futbolari buruzko azalpenak amaitu ostean, zenbait proiektu eta egitasmo berritzeari ekin genion. Han zegoenetako bat aspalditik ari zen Beasain kontsumo-produkturen baten bidez esparru ludiko eta kulturalean ezagutarazteko asmoarekin, beasaindarrok bagoigile soilak ez izateko. Produktuari zegokionez, odolkiari eskaini zioten arretarik handiena, Beasainen jaiotakoak izan gabe ere, jende askok ezagutzen zuelako. Solaskideetako batek aipatu zuenez, elkartuetako bi Laudioko San Roke Kofradiako kide omen ziren eta abuztuaren 16an herri hartako eliz atarian elkartzen omen ziren zaindariaren eguna ospatzeko.

Han elkartutakoon iritzia zen, garaiari zegokionez, odolkia eta Loinazko San Martin uztartzeko modukoak zirela eta eliz ataria ere erabil zitekeela jaia ospatzeko. 1986ko otsailaren 5a Kofradiaren I. Kapituluko data izan behar zuela erabakita irten ginen handik. Horrela ipini zen Beasaingo Odolki Kofradiaren lehen harria". Hala dio Kofradiaren lehen agiria omen denak, Beasaingo Odolki Kofradiaren Sorrera eta Historia izenburukoak.

quedaba puesta la primera piedra de la Cofradía de la Morcilla de Beasain". Así reza el considerado primer documento de la Cofradía que lleva el título de 'Historia y Orígenes de la Cofradía de la Morcilla de Beasain'

Se crea una Comisión gestora integrada por José Martín Imaz, Joaquín Goicoechea,Martín Urquiola, Carmelo Eceiza, José Luis Ibisate, Xabier Arrese, Karlos Arguiñano José Luis Zaldua y Txiflo Apalategui.

Se inician las gestiones para captar los cofrades estableciendo como numerus clausus 130 personas en el colectivo

Era septiembre de 1985 cuando se redactaron los estatutos que quedaron fechados el 19 de octubre de 1985.

Eran un articulado que a pesar de haberse redactado en las postrimerías del S. XX no admitía a la mujer como cofrade uno de sus artículos señala taxativamente "para ser cofrade unicamente se exige haber nacido hombre y obtener el aval de dos miembros", un texto que a día de hoy ha quedado en desuso porque el genero femenino ya está presente en la Cofradía.

PRIMERA SALIDA

Establecieron contacto con la Cofradía Vasca de Gastronomía para dar cuenta del nacimiento del nuevo ente de la Morcilla. De inmediato se les invita al Capítulo de la Cofradía Vasca de Gastronomía y en el paseo de la Basílica de Santa María y el Ayuntamiento donostiarra dos cofrades van tras la pancarta de la Cofradía de la Morcilla de Beasain, sin la parafernalia de otras Cofradías pero con el símbolo de una ristra de morcillas bordadas sobre fondo de fieltro amarillo. Fue la primera salida, la puesta de largo, oficial, en el mundillo de los capítulos de sus cofradías hermanas". Así queda recogido en el documento fundacional de la historia de la Cofradía de la Morcilla

Los estatutos recuerdan que se crea la entidad en el objetivo social de promocionar y coordinar la elaboración y promoción de las bien denominadas Morcillas de Beasain para lo cual se constituye la mencionada Cofradía e instituye el día 5 de febrero de cada año, festividad San Martín de Loinaz, patrón de la misma. En esa fecha, cada año, en los pórticos de la parroquia se llevará a cabo una comida en base a la Morcilla de Beasain. En los estatutos quedaba fijado el día de la celebración

